

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure produktuari buruz eskaini ditugun gauzak betetzeko eta horiekin aurrera jarraitzeko hainbat baliabide beharko ditugu. Baliabide ezberdinen artean gure ustez ondorengo hauek beharko ditugu gure produktuarekin aurrera ateratzeko.



- **Baliabide fisikoak:** Lehenengo gure produktua egiteko zein baliabide fisiko erabiliko ditugun azalduko dugu, hauek dira horietako batzuk. Lanerako garaje bat izanen dugu momentuz bertan gure produktua egiteko eta muntatzeko. Garaje bat erabiliko dugu zeren doan ateratzen zaigu, hau da, ez dugu hileru zerbait ordaindu beharko zeren garaje hau gure taldekide Peioren da eta bertan gure produktua egitea baimentzen digu momentuz. Ordenagailu bat ere beharko dugu gure web gunea eta on line erosketak kontrolatzeko. Beste aldetik garraiorako furgoneta bat beharko dugu. Mugikor bat ere beharko dugu gure bezeroekin komunikatu ahal izateko eta baita gure artean ere, hau da langileen artean. Eta azkenik gure produktua egiteko hau da fabrikatzeko materiala eta makinak beharko ditugu.



- **Baliabide intelektualak:** Gure langileen baliabide intelektualen artean, nagusia hauek dira. Aimarrek ingeniartzita mekanikako masterra dauka eta tailerreko makina guztiak ezagutzen ditu, Xabierrek ingeniartzita ikasi du eta planoak egiten oso ona da eta Peiok Marketing-go karrera ikasi du eta gure produktuaren publizitatea oso ondo egiten daki. Beste langileek goi-mailako zikloen titulua daukate.



- **Giza baliabideak:** Aimarren sormenak eta produktuak fabrikatzeko jakintasuna eta abileziarekin gure produktua fabrikatuko dugu, Xabierren diseinatzeko jakintasuna eta irudimena gure produktuaren planoak egingo ditu ondoren fabrikatu ahal izateko,, Peioren iragarkiak eta jendea erakartzeko abileziarekin egunkarietan iragarkiak sortu eta bezeroak lortuko ditugu eta Mikelen saltzeko eta jendearekin hitz egiteko abileziarekin produktua salduko dugu. Gehien nabarmentzen duguna giza baliabideetan denek ekipoan lan egiteko gaitasuna da. Oso garrantzitsua da gure ustez denek denekin lan egiten jakitea horrela emaitza hobekiak lor daitezkeelako eta hau gure enpresan betetzen den gauza bat da.



- **Finantza baliabideak:** Gure produktua aurrera ateratzeko finantza baliabide batzuk aukeratu behar izan ditugu, bi finantza baliabide nagusiki. Alde batetik gure aurrezkiak jarri ditugu gure produktuarentzat eta bestetik honekin nahikoa ez denez mailegu bat eskatu diogu Caixa bank banketxeari.

